

Bermeoko Udalak hainbat neurri ekonomiko hartuko dauz COVID-19 birusak eragindako egoeraren aurrean:

#### 1.- ORDAINKETAK EGITEKO EPEAK

Ordainketak egiteko epe guztiak atzeratuten dira (autoen ganeko zerga, isunak, tasak...)

Alarma egoerea altza arte, ez da ordainketa barririk egiteko erreziborik igorriko. Atzeratu egingo dira.

#### 2.- ALARMA EGOERAGATIK EMON EZ DIRAN ZERBITZUAK EZ DIRA KOBRATUKO

Musika eskolako tasaren parte proportzionalA

Kirol ikastaroak

Kiroldegiak itxita dirauen bitarteko kuota

#### 3.- DEKRETUA DALA ETA NEGOZIOA ITXI BEHAR IZAN DABEN MERKATARI, OSTALARI ETA ZERBITZU ENPRESEI

Jabari publikoan dagozanen kasuan, itxita dagozan epeari jagokon alokairua (emakida edo okupazio tasa) ez jake kobratuko.

Ostalaritzako terrazen tasa: itxita dagozan epeari jagokon tasea ez jake kobratuko

Sastar-batze tasa: itxita dagozan epeari jagokon tasea ez jake kobratuko

#### 4.- AUTONOMO ETA ENPRESENTZAKO AHOLKULARITZEA

Neurri honeen ganeko edota beste erakundeetatik etor daitekezan laguntza eta informazioari buruzko argibideak emoteko eta tramiteak egiten lagunduteko aholkularitza zuzena eskaino da udaletik: [autoenplegua@bermeo.eus](mailto:autoenplegua@bermeo.eus)

946179190

Neurri guztiak beste erakundeetatik etorri leikezan laguntzakaz bateragarriak izatea bilatuko da.

